

## ETXAURIN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA SORTZEKO PROZESUA

PROCESO PARA LA CREACIÓN DE UNA COMUNIDAD ENERGÉTICA EN ETXAURI

| 9.SAIOA                   | PARTAIDEAK / Asistencia                                                            |
|---------------------------|------------------------------------------------------------------------------------|
| 2023-10-09<br>18:00-19:30 | Herritarrak / Ciudadanía: 6 (5 emakume, gizon 1)                                   |
|                           | Udala / Ayto.: Idoia Aritzala (alkatea)                                            |
|                           | Dinamizazioa / Dinamización: Maria Arretxe (Goiener), Uxune Alustiza (Emun Koop.E) |

### 1. Errepasoa / Repaso

Jende berria etorri denez, otsailek hona egindako prozesuaren errepasoa egin dugu.

*Como ha venido gente nueva, hemos hecho un repaso del proceso desde febrero hasta hoy.*

### 2. Estatutuak onartzea / Aprobar estatutos

Urriaren 10ean egindako ezohiko bileran, kooperatiba ez sortzea erabaki zen eta elkarte batekin abiatzea. Beraz, lantalde juridiko-administratibokoek, Maitek eta Idoiak, Etxaurindarra elkartearen estatutuak prestatu dituzte eta gaur aurkeztu dizkigute. Irizpidea izan da ahalik eta sinpleenak izatea, legeak jartzen dituen minimoak kontuan hartuz. Hainbat erabaki hartu ditugu:

Zero euroko kapitalarekin abiatuko da elkartea.

Gutxienez hiru kargu izendatu behar direnez, izendapenak egin ditugu:

- Lehendakaria: Maite
- Idazkaria: Miren
- Diruzaina: Juanma

Izendapenak bi urterako dira, baina, ondoren, nahi beste errepikatu daitezke karguak. Bi urtez behin, batzarrean berretsi edo aldatu beharko dira.

Erabaki da elkarteko bazkideek urteko kuota bat izatea: 20€

Hurrengo pausoak:

- Kargudunekin egon, sinatu beharreko agiriak sinatzeko.
- Eratze akta sortu, udala ere bazkide eginez, hiru pertsona horiekin batera.
- Elkartea erregistratu.

*En la reunión extraordinaria convocada para el 10 de octubre, se decidió que vamos a crear una asociación inicialmente. Por lo tanto, el grupo jurídico-administrativo, Maite e Idoia, han preparado los estatutos para la asociación Etxaurindarra y nos los han presentado hoy. El criterio ha sido empezar por lo más simple, teniendo en cuenta el mínimo que pide la ley. Hemos tomado unas decisiones:*

*La asociación arrancará con capital cero.*

*Como el mínimo son tres cargos, hemos nombrado a cada cargo:*

- *Presidenta: Maite*
- *Secretaria: Miren*
- *Tesorero: Juanma*

*Los nombramientos son para dos años; después, se puede repetir cargo. Cada dos años, se tendrá que renombrar o cambiar en asamblea.*

*Se ha decidido que habrá una cuota anual de socio/socia de 20€.*

*Siguientes pasos:*

- *Estar con las tres personas nombradas para firmar los documentos necesarios.*
- *Preparar el acta constituyente donde se integre al ayuntamiento como socio, con las tres personas nombradas.*
- *Registrar la asociación.*

### 3. Diru kontuak eta banketxea / Cuentas y bancos

Kontu korrante baten mantentze-gastuak handiak dira Caixan eta Laboralean. Oraindik ez daukagunez diru mugimendurik, erabaki dugu ez dugula kontu korronterik sortuko.

Aurkezpen publikoa egiten dugun egunean, jendea bazkide egiteko aprobetxatuko dugu. 20€ak momentuan jarriko ditu jende askok, beraz, dirua nonbait gorde beharko dugu. Udaletxean badago kutxa-gotor bat eta bertan gorde dezakegu, proiektuarekin dirua mugitzen hasten garen arte.

Fiare banku etikoan galdetuko dugu ze aukera ematen dituen.

*Los gastos de mantenimiento de una cuenta en Caixa y Laboral son excesivos. Hemos decidido no crear ninguna cuenta hasta que tengamos movimientos de dinero, como, por ejemplo, con el proyecto.*

*El día de la presentación pública la aprovecharemos para que la gente se haga socia. Mucha gente entregará los 20€ en el momento, por lo tanto, habrá que guardar el dinero en alguna parte. Se puede utilizar la caja fuerte del ayuntamiento hasta que empecemos a necesitar una cuenta.*

*Preguntaremos en el banco ético Fiare sobre las posibilidades que nos da.*

### 4. Herrian aurkezpen publikoa / Presentación pública al pueblo

Azaroaren 5ean, igandea, 12:00etan egingo dugu aurkezpena jendaurrean. Udaletxeko areto handi honetan izango da. Luntxa jarriko dugu.

Proiektua aurkeztuko dugu, irailaren 12an aurkeztu genuen antzera. Fakturak eman zituztenei aurkezpen honetara etortzeko gonbita luzatuko diegu, eta, behin aurkezpena egindakoan, bilera batera deituko ditugu, aurkezpenaren ondoren jende berria animatu daitekeelako.

Mirenek elkartearen logorako bizpahiru proposamen prestatuko ditu eta Whatsapp taldera bidali. Aurkezpenean erakutsiko dugu lehenbizikoz logoa.

Komunikazioko lantaldekoek hurrengo saiorako ekarriko dute aurkezpenaren gai zerrendaren proposamena eta atal bakoitza nork aurkeztu dezakeen. PPTa ere aurreratzen joan daiteke. Bukaeran banatzeko esku-orria ere egingo dugu.

*La presentación pública será el 5 de noviembre, domingo, a las 12:00, en esta sala grande del ayuntamiento. Pondremos un lunch.*

*Presentaremos el proyecto como lo hicimos el 12 de septiembre. A la gente que entregó su factura le enviaremos una comunicación invitándola a asistir a la presentación, y, una vez hecha la presentación, la convocaremos a una reunión, ya que puede animarse gente nueva en la presentación.*

*Miren preparará 2-3 ideas para el logo de la asociación y las enviará al grupo Whatsapp. El logo se mostrará por vez primera en la presentación.*

*El grupo de comunicación traerá a la siguiente reunión la propuesta de temas a tratar en la presentación y quién los puede presentar. También se puede ir preparando el PPT. También haremos un díptico para repartir al final.*

### 5. Itxiera / Cierre

Asierrek APERNA elkartearen berri eman digu. Unibertsitateko ikasleek sortutako elkartea da, eta hainbat irakasle ere badaude tartean.

Gaur etorri den jende berriari gonbita egin diogu talde motorrean parte hartzeko hemendik aurrera ere, eta Whatsapp taldean sartu nahi badute abisatzeko esan diegu.

Hurrengo bilera urriaren 23an edo 24an, aretoaren arabera. Baieztatzeko.

*Asier nos ha informado sobre la asociación APERNA, creada por estudiantes de la universidad e integrada, también, por el profesorado.*

*Hemos invitado a las personas nuevas que han asistido hoy a sumarse a las reuniones del grupo motor, y que nos avisen si quieren entrar el grupo Whatsapp.*

*La siguiente reunión será el 23 o 24, según la disponibilidad de la sala. Por confirmar.*

## 6. Egitekoak / Tareas

| ZER                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | NORK                              |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Juridiko-admin: estatutuak finikitatu, karguetako pertsonen datuak bildu, eratze akta sortu eta sinatu, erregistrora joan. Fiare banku etikoan galdetu aukerak.</li> <li>- <i>Jurídico-admin: finiquitar estatutos, recoger datos de los cargos asignados, crear y firmar acta constituyente, ir al registro. Preguntar en Fiare las posibilidades.</i></li> </ul>                          | Lantalde juridiko-administratiboa |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazioa: Miren Whatsapp taldean sartu, aurkezpenaren gai zerrenda prestatu, hizlariak proposatu, PPTa aurreratzen joan. Fakturak aurkeztu dituztenei komunikazioa.</li> <li>- <i>Comunicación: meter a Miren en el grupo Whatsapp, preparar temas para la presentación, proponer ponentes, ir preparando el PPT. Comunicación a las personas que entregaron su factura.</i></li> </ul> | Komunikazioko lantaldea           |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkartearen logoa egin / <i>Hacer el logo de la asociación.</i></li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | Miren                             |